

## Pisuko Komeriak



**Arantzazuko Ama**

**BHI**

**DBH 2ko ikasleak**

**M. Josune Otxotorenaren  
ardurapean**

Sarrera

## I EKITALDIA

(Ane jende artetik, eskuan egunkaria duela, inguratzen da Mendelu 46ra)

### 1. eszena

**ANE:** (Publikoari) Aizue, badakizue non dagoen Mendelu 46?...; 42..., 44..., 46..., A! Hemen da! Azkenean! Kaleko azken ataria, porru eginda nago, eta ez enporratuta, e! Ni sanao naiz, porru eginda egotea euskaltegian esan dute... didate nekatuta egotea dela jator esanda, (Arnasestuka). Bihotza bun-bun-bun... bonbo baten gisa daukat. (Atea jotzen du).

**PERU:** Nor da?

**ANE:** Hemen da pisu... ui!... etxebizitza alokatzen (Bere kolporako) "alokatzen ja-ja" den lekua? "Ni" interes handia dut.

**PERU:** "Zuk" izango da, "zuk" interesa duzula.

**ANE:** Bai hori esan dut "ni".

**PERU:** "Zuk", "zuk" esan duzu.

**ANE:** A, tira-tira, mila esker; euskara ikasten ari naiz eta, zu nire irakasle izan zaitezke.

**PERU:** Ongi, baina etxe polit, argitsu, txukun, ederra ikusi nahi duzu?

**ANE:** Baiii?, hori dena da?; ez badituzte gorriak ikusten eta merkea bada.

**PERU:** Eskaintzen duenerako oso... txit merkea, badakit nik ederki aski zuek, gazteok, ez duzuela diru askorik.

**ANE:** Egiatan? Flipatzen nago, ez zara timatzailea izango, ezta?

**PERU:** Jainkoaren izenean, Ave Maria gratia plena! Ni ez naiz zuria, zera...!

**ANE:** Orduan, beltza!

**PERU:** Ez naizela gezurtia, kontxo! Zatoz eta ikusiko duzu! (Etxea erakusten dio), gela bat, bi, hiru, lau eta bost! Bainugela eta sukaldia hor. Dena kanpo aldera, hondartza parean. Margotu berria, pvc-zko leihoak, fabrikatik atzo ekarritako altzariak. Berogailu modernoenetarikoak... eta dena merke-merke.

**ANE:** Zenbat? (eskuz egiten dio keinua)

**PERU:** Zu izateagatik, euskaltegiko ikaslea, merkexego utziko dizut.

**ANE:** Bai, baino, zenbat? Kontuz nire bihotza oso ahul-ahula,...

**PERU:** 500 euro orduan.

**ANE:** Ala! Amatxo maitea! Nire soldata baino gehiago.

**PERU:** Txintxoa ematen duzu ba, e! Orduan 50 kenduko dizkizut, 450ean utziko dizut.

**ANE:** 450 euros, la leche! Bueno, gizona, banoa azkar ikastera. Izango duzu nire berri! (Ateratzen da eta marmarka) Arranopola! Aitona bai baina tontoa ez! Ea nor engainatzen dudan nik, nori sartzen diodan ziria hona etortzeko.

## II EKITALDIA

### 1. eszena

(Martak eta Anek kalean elkar topo egin eta hizketan ari dira)

**MARTA:** Fashion-fashion izan behar du, e!

**ANE:** ¿Cómo no? Horixe baietz! Bestela ez nizukeen esango. (Berekiko) Ondo esan dut, ez?

**MARTA:** Askotxo da, dena den, eta ez dakit nire gurasoek dirua emango didaten, bestelako beharrak ere baditut, eta ez dut lan bat bilatuko, zeren nik... (bere eskuei begira).

**ANE:** Bueno, "baga edo ez ga", nire maisuak esaten duen bezala; elkarrekin sartuko gara, bai ala ez?

**MARTA:** Eta zergatik ez jende gehiago bilatu? 5 gela betetzekotan komeni zaigu pisua.

**ANE:** ... esperientzia berrietara irekitzea.

**MARTA:** ... hori, hori! Gurasoei eskatuko diet etxebizitzarako diru sarrera, (begi handiak jarriaz) eta elkarrekin esperientzia berriak, ui, jende berria aurkituko dugu.

**ANE:** (Bosteko hegalaria emanez) Ederki! Ijuuuuuu! Riau-riau! (Eta biak elkarrekin doaz saltoka).

## III EKITALDIA

### 1. eszena

(Txartel bat itsatsita horman: "Pisua konpartitzen da, interesatuok Mendelu 46ra etorri")

(-Tok , tok!!!)

**ANE:** (Atea irekitzen du)

**KOLDO:** Kaixo, arratsaldeon, barkatu, hemen da bi neska jatorrekin alokatzen den pisua?

**ANE:** Bai hemenxe da. (Berekiko) "A ze mutil jatorra"!

**ANE:** Sartu, sartu, kaferik nahi?

**KOLDO:** Ez, eskerrik asko, niri tea gustatzen zait.

**ANE:** A... sentitzen dut baina terik ez dugu. Beno, beno, etorri logelak ikustera...

**KOLDO:** Non dago beste neska?

**ANE:** Oraintxe ez dago etxean...Beno,hau da lehenengo logela; oso abegikorra da, denetatik dauka; Armairu enpotratua,izugarrizko bistak...

**KOLDO:** A! ederki asko baina... noiz itzuliko da etxera beste neska?

**ANE:** (Ejem, ejem...) bai, gero,gero... (Berekiko) A ze tipoa, ez dit ba besteagatik galdetu besterik egingo beti, ezta? (Koldori) eta hemen dago bigarren logela... hau pixka bat txikiagoa da baina denetatik argitsuena eta gainera «tiene cuarto de baño incluido».

**KOLDO:** Bai, baina honek denak, zenbat balio du...zeren ni (ejem, ejem) estudiantea izanik, nire gurasoek hilean 600 euro bakarrik ematen didate.

**ANE:** (Berekiko) Jopela , earraz aparte, xoxak ugari ditu honek! (Koldori) 450 euro balio du (Tok, tok, jotzen dute atea eta Anek irekitzen du)

**MARTA:** Joe, kostatu zaizu atea irekitzen, e!!!

**ANE:** Marta, hau da gure maizter berria! Koldo du izena ...

**MARTA:** (Joaten da Koldorengana) Ui! Jertse hori zer da, "Ripiti curl"? (Aneri ekarritako arropa botatzen diola).

**KOLDO:** Bai.

**MARTA:** Ai! Ze fashion!!! (Besarkada bat ematen dio)

**KOLDO:** Kendu hemendik! Nor ari zara besarkatzen ni edo nire jertsea?

**MARTA:** (Joaten da Anerengana) Begira, Ane, ze poltsatxo polita erosi dudan, "Mis Muñeki"!!!

**ANE:** (Haserretuta sofa gainera botatzen du arropa guztia)

**KOLDO:** Bueno, ba... pisan geratuko naiz. Noiz ekarriko ditut nire trasteak?

**ANE:** Nahi duzunean, tori giltzen kopia bat!

**KOLDO:** Bale ba, beno, gero arte, e!!! AGUR

**ANE:** Agur Koldo!!

**MARTA:** (Joaten da Koldorengana eta bi muxu emanez) Ciao, ciao, Koldito!!!! (Atea ixten denean...)

**KOLDO:** (Imitatuz) "Ciao, ciao, Koldito" Joe! Neska txolin hau jasan beharko dut, ba! Beno, baina bestea... ez dago batere gaizki.

## 2. eszena

(Lierni kalean paseatzen ari da eta hormako txartela ikusten du. Mendelura joaten da eta neskei deitzen die. Aitona aterako da)

**AITONA:** Bai, nor da?

**LIERNI:** Kaixo, pisu bila nator. (Bitartean amona atearen beste aldean dena entzuten ari da.)

**AITONA:** A bai, hemen da, baina beste neska batekin geratu beharko duzu, 4. C-n geratu beharko duzu.

**LIERNI:** A, ongi.

## 3. eszena

**MARTA:** Kaixo, zein da?

**LIERNI:** Kaixo, Lierni naiz, kaleko iragarkia ikusi dut. Hemen da, ezta?

**MARTA:** Bai, hemen da. Etxea ikusi nahi duzu?

**LIERNI:** Bai, bai.

**MARTA:** Sartu, ba.

**LIERNI:** Oso polita da, ez balitz leihoak hautsita daudela, lurra zulatuta dagoela, arratoiak daudela...

**AMONA:** Epa! Ni Joxepa naiz, hemengo modelo sexia (Itxura sexia jarriz) dena entzun dut, zu bai gezurtia, etxe hau primeran dago.

**LIERNI:** "Bai, bai, hemengo kontakatilua, seguru". (Martak entzuten dio, barrez hasten da).

**AMONA:** Ze arraio ari zarete barrez? "Hau pailazo pare!". Hau primeran dago; zikinkeria pixka bat garbitu eta kito! Leihoak ez daude hautsita, hori haize egokitua da.

**LIERNI:** Zu hemengo jabea zara?

**AMONA:** Ez, ni...

**LIERNI:** Ba orduan, aire, aire, eta bakea eman!

**MARTA:** (Baju) Nola moztu duen!

**LIERNI:** Zein uste du dela, hori sexia bada ni zer naiz?, Claudia Schiffer edo... (Lierni eta Marta amona imitatzen hasten dira, honetaz barrezka).

**MARTA:** Bueno orduan zer, etorriko zara hona bizitzera? eta arratoiak direla eta, lasai, jabeari esango diogu konpontzeko.

**LIERNI:** Bai, baina prezioa...

**MARTA:** Lasai, beste lagun bat ere gurekin biziko da eta ez da asko izango, lasai.

**LIERNI:** Bueno ba, hurrengora arte.

**MARTA:** Bai agur, eta deitu, e?

**LIERNI:** Bai.

#### 4. eszena

(Lierni etxetik irteten da eta amona ikusten du nola ari zaion ikusitako guztia aitonari kontatzen).

**AMONA:** Bota ninduten gelatik eta...

**AITONA:** Hori ez da posible.

**LIERNI:** E, agur sexi, "ja, ja ja" eta ez ligatu asko aitonarekin, ea horrelako sasoiarekin jarraitzen duzun beti.

**AITONA:** Errespetu gehiago mesedez, a ze modalak, ez ahal zara etorriko behintzat!

## IV EKITALDIA

#### 1. eszena

**MARTA:** (Marta kaletik doa) Epa, Xanti!

**XANTI:** Ui! Ez zaitut ikusi! Zertan zabilta hemen?

**MARTA:** Zure bila!

**XANTI:** Nire bila?

**MARTA:** Ba... beno, ez! Badakizu zer? Beno ezer ez.

**XANTI:** Pisu baten bila nabil, badakizu pisu bat non dagoen

**MARTA:** Bai, nik pisu super fashion bat alokatu dut eta han badago lekua.

**XANTI:** Bai! A ze ondo! joan al gaitezke pisua ikustera?

**MARTA:** Ba... Bai (Xanti eta Marta pisura joaten dira).

## 2. eszena

(Tinbre-soinua: Din, don, bun.)

**ANE:** Bai?

**MARTA:** Kaixo, begira, mutil bat dator pisua ikustera. Xanti deitzen da.

**ANE:** Epa, Xanti! Pisua ikustera zatoz?

**XANTI:** Ba, bai. Benga, gelak erakutsi.

**ANE:** Eeee! lakzaitu.

**MARTA:** Begira, hau komuna da, oso berria, beno batzuetan saguak ateratzen dira baina tira. (Amonak leihotik dena entzuten du).

**XANTI:** Niri saguak berdin zaizkit.

**ANE:** Hau lehenengo logela, hau bigarrena, hirugarrena, laugarrena eta bosgarrena, oso politak dira, denek koltxoi berria daukate

**XANTI:** Ze ondo! Koltxoi berria!

**MARTA:** Beno, Xanti, hau zure logela da, oso handia da eta abegikorra. Zerbait nahi duzunean Aneri eskatu zeren nik esmaltea puskatuko dut bestela.

**ANE:** Ja, ja... pisuaren jabea ondoko etxean bizi da

(Amonak entzundako guztia kontatzen dio aitonari)

(Koldo, Ane, Marta eta Xanti, lo egitera doaz)

## V EKITALDIA

### 1. eszena

(Aitonaren etxearen atarian. Anek atea jotzen du, aitona ateratzen da.)

**PERU:** Nor da?

**ANE:** Kaixo, Peru.

**PERU:** Kaixo, neskatxa! Zer moduz gabiltza?

**ANE:** Gu primeran eta zu? Berri onak dauzkat. Pisia alokatuko dugu baina lagun gehiago etorriko da.

**PERU:** Jende jatorra? Gazteak? Lan egiten dute? Animaliarik bai?

**ANE:** (A ze agurea!) Ez, ez dute animaliarik eta jende jatorra da.

**PERU:** Orduan ez dituzue parrandak egingo, aurrekoek bezala, "wassssaaa!!!!!!!!!!" Eginez eta. Gainera zintzo arraio pagatuko didazue, ezta?

**ANE:** Bai horixe! Hori bai, epe bat utziko diguzu pagatzeko, noski.

**PERU:** Horixe baietz! baina azkar pagatu, nik ere nire xoxak behar ditut eta...

**ANE:** Aaaa...

Txin-txin, txin-txin  
diruaren hotsa...  
Horrexek ematen du,  
aitona...  
poltsikoan poza.

**PERU:** Txin-txin, txin-txin, baita niri ere. Ala, segi, simosa. Eta txintxo portatu. Mutxurdinez inguratuta biziko zarete eta.

**ANE:** Musu urdinak?

**PERU:** Nahi bai, musuak hartu. Mutxurdinak esaten nuen, zera...kontakatiluak, berriketontziak, beti txutxu-mutxuka ari direnak.

**ANE:** Orduan mintza praktika horiekin egin dezaket...

**PERU:** Ez dizut hori aholkatzen, simosa. Beno, laster arte.

**ANE:** Bai, agur eta eskerrik asko.

**PERU:** Bai, bai, agur.

## VI EKITALDIA

### 1. eszena

(Laurak, Marta izan ezik, egongelan daude festarako gauzak prestatzen. Bat-batean Marta azaltzen da.)

**MARTA:** Begira! Ze guapa jarri naizen!

**DENAK:** Bai, bai...oso guapa...

**KOLDO:** Ai! Ze fashion, neska! (Marta Xantirengana doa eta harroxkoarena egiten hasten da...)

**XANTI:** Nire musikarik onenak ekarri ditut : Chasis, Bartezz, Safri duo...

**LIERNI:** Bale, ederto!

**KOLDO:** A, ba nik Elvis ekarri dut.

**XANTI:** Ez! Hori jasangaitza da.

**KOLDO:** E, bale, lasai.

**LIERNI:** Tira, tira, ez haserretu, biak jarriko ditugu.

**MARTA:** (Joaten da Xantirengana) Xanti, niri zure musika gehiago gustatzen zait Koldorena baino, eta gainera musika lasaiak ere gustatzen zaizkit.

**XANTI:** (Begirada arraroa eginez.) Baina... nik ez daukat horrelako musikarik.

**MARTA:** A, ongi, ba orduan zuk jartzen duzuna polita izango da.

**KOLDO:** (Anerengana hurbilduz.) Ane, oso guapa jarri zara festa honetarako.

**ANE:** A, mila esker, zu ere ez zaude gaizki.

**KOLDO:** Gero dantzatuko duzu nirekin?

**ANE:** Noski, horixe baietz.



**KOLDO:** (Pentsatzen) Harrapatua daukat!

(Tok, tok, beste lagunak sartzen dira.)

## 2. eszena

(2 lagun festara iristen dira)

(TINBREA: -Din, don).

**ANE:** Banoa, banoa.

**OIHANE:** Kaixo, Ane; festara gatoz.

**XABI:** Kaixo, ni ere festara nator, sar gaitezke?

**ANE:** Por supuesto, itxoin, itxoin, euskaltegian esaten duten bezala, "noski".

**IÑIGO:** Kaletik gindoazen, eta buila entzun dugu, eta etorri gara.

**JOSUNE:** Ni berarekin nator. (Lauak sartzen dira) (Ordu erdi bat pasa ondoren, denak mozkortuta daude).

**ANE:** Oihane, gauza bat esan behar dizut. Koldo gustatzen zait.

**OIHANE:** Eta niri Xabi gustatzen zait. (Oihane Koldorengana doa)

**OIHANE:** Koldo, norbait gustatzen zaizu?

**KOLDO:** Bai, Ane, zergatik?

**OIHANE:** Eske... Ane zurekin gustatuta dago. (Koldo Anerengana joaten da)

**KOLDO:** Ane, egia da Oihanek esan didana?

**ANE:** Zer esan dizu?

**KOLDO:** Zu nirekin gustatuta zaudela.

**ANE:** Beno...Eske...bai, ez, beno, bai, zurekin gustatuta nago.

**KOLDO:** Ba, ni ere...

**OIHANE:** Kaixo, bikote, elkarrekin zaudete?

**ANE:** Egia esanda...

**KOLDO:** Ba bai... (Koldo eta Ane nobioak dira) (Ane, Xabirengana joaten da)

**ANE:** Kaixo, Xabi, norbait gustatzen zaizu?

**XABI:** Zuri ze inporta zaizu!

**ANE:** Ni konturatu naiz norbait zurekin gustatuta dagoela.

**XABI:** Zein, zein da?

**ANE:** Oihane da, gustukoa duzu?

**XABI:** Ba... bai. Egia izango da, ezta?

**ANE:** Oihanerekin hitz egin! (Xabi Oihanerengana joaten da)

**XABI:** Anerekin hitz egiten egon naiz eta esan dit zu nirekin gustatuta zaudela. Egia da?

**OIHANE:** Bai, egia da. Nirekin atera nahi duzu?

**XABI:** Noski! (Xanti eta Lierni hitz egiten ari dira)

**XANTI:** Lierni, zurekin gustatuta nago eta esan behar nizun...

**LIERNI:** Nirekin atera nahi duzu??

**XANTI:** Bai, hori galdetu behar nizun. (Bikote guztiak dantzatzen hasten dira, musika goxo batekin)

**JOSUNE:** Zu eta ni gelditzen gara.

**IÑIGO:** Dantzatuko dugu?

### 3. eszena

(Denak dantzaz daude elkarrekin eta musika lasaitzen denean hobeto moldatzen dira beraien artean; hainbat bikote sumatzen dira eta batetik bestera dabilena Marta da, ezin ligaturik).

**MARTA:** A ze festa ona! Hemen giro bikaina dago, baina zerbait falta da. (Aulkian eserita dago).

**ANE:** Ez bazara ongi sentitzen, buelta bat ematera joan zaitezke eta ongi sentitzen zarenean etorri. Laguntza behar duzu?

**MARTA:** Ez, ez, jarraitu Koldorekin, oso gustura zaudete eta... ni bestelako konpainia bilatzera noa.

**ANE:** Bestelako konpainia?

**MARTA:** Nire sekretuak dira (erdi negarrez ateratzen da).

### 4. eszena

(Etxetik atera bezain azkar ikusmiran zegoen amonarekin topatzen da.)

**MARTA:** Ui! Kaixo zer egiten duzu hemen?

**AMONA:** Ba, ba, ni hemen paseatzen, eta zu?

**MARTA:** Ba ni buelta bat ematera noa.

**AMONA:** Eta zergatik zaude erdi negarrez ?

**MARTA:** Ez zaizu inporta; horiek nire kontuak dira (korrika abiatzen da).

**AMONA:** Bai inporta zait! Niri etxe honetan gertatzen den guztia inporta zait. Badakit zure lagunak oso pozik daudela elkarrekin Koldo Anerekin o!!! Ze ondo! Eta Lierni Xantirekin a!!! Ze gozo! Eta besteak, nor dira besteak? Ze horiek ere gustura asko daude.

**MARTA:** Amona mutxurdina, zergatik ez zara zure etxean sartuko? (eta korrika joaten da).

## 5. eszena

(Marta baztertuta sentitzen da eta eskailetara joaten da. Bertan mafia dago)

**WILLY:** Zuk eskatutakoa ekarri dugu.

**FOGG:** Ekarki ditugu "pepak, txokolatea, gozokiak, tirifoa..."

**MARTA:** Bai, bai, baina zenbat da?

**WILLY:** Zortzi mila pezeta dira bakarrik.

**FOGG:** Zu izateagatik, eeee! (Martak ez du hainbeste diru eta pisura sartzen da dirua hartzera, berriro kalera ateratzen da eta trukaketa egiten dute.)

(Marta dena irensten hasten da eta amonak dena ikusten du)

(Marta dena hartzen hasten da azkar, azkar)

**FOGG:** Lasai, lasai ez hartu hain azkar, kalte egingo dizu!

**WILLY:** Harrapatzen bazaituzte ez gaituzu ezagutzen, e! Bestela, zure aurpegi polita mailatuko dugu!

**MARTA:** Eskerrik asko denagatik, nire salbazioa zarete.

(Amona hori dena ikustean aitonari esatera abiatzen da baina oso berandu denez, hurrengo egunean izan beharko du)

(Marta, gero eta okerrago sentitzen da eta lurtean etzaten da, bertan pasatzen du gau osoa.)

## 6. eszena

(Hurrengo egunean Marta ez da agertzen eta bere lagunak kezkatu egiten dira. Amonari galdetzen diote ea ikusi duen)

**AMONA:** Bai horixe, gozokiak, txokolatea, irina, aspirinak... uste dut, txutxerien antojoa zuela baina ez dakit.

**LAGUNAK:** E, e, e...

**AMONA:** Bai, farmaziakoak etorri eta pastillak eta eman zizkioten, hainbeste zaratarekin buruko mina edukiko zuen edo.

**XANTI:** Pastillak. Pastillak? Kostoa, droga... droga kontuan dabil!

(Denak Martaren bila joaten dira, amonak bitartean aitonari dena kontaktzen dio).

## 7. eszena

(Lagunak kalera joaten dira eta lurrean aurkitzen dute (etzanda) Marta. Berarekin hitz egiten saiatzen dira)

**ANE:** Marta, Marta, zer gertatu zaizu, erantzun!!!

**MARTA:** E, e, e... (kasu egin nahi die, baina begiak zuritu egiten zaizkio)

**KOLDO:** Nire errua izan da, berarekin egon behar nuen.

**XANTI:** Ez, ez nirea izan da.

**LIERNI:** Berdin dio norena izan den errua, ospitalera eraman behar dugu.

(Marta ospitalera eramaten dute).

# VII EKITALDIA

## 1. eszena

(Medikuek Marta gela batean sartzen dute, bitartean bere lagunak atean daude.)

**ANE:** Isilik egongo gara benetan.

**ERIZAINA:** Ez, ez, ala, itxaron gelan itxoin beharko duzue.

**MARTA:** Bai, nik lo pixka bat egin nahi dut, gainera, hemen airea falta da eta hori nire kutisarentzat oso-oso txarra da.

**KOLDO:** Bueno, ba, agur.

**MARTA:** A, eta bazoaztenez, ekarri etxetik atzazalak margotzekoa eta ezpainetako batzuk, e?

**XANTI:** Bai, bai noski.

## 2. eszena

(Marta gaixorik dago eta laurak oso kezkatuta daude itxaron gelan)

**ANE:** Jo, zer gertatu zaio? Snif, snif.., nire kulpa da.

**KOLDO:** Ez, ez esan hori, zuk ez duzu kulparik.

**ANE:** (negarrez) Bai nire errua da, nik esan nion paseo bat ematera joateko.

**LIERNI:** Lasai, lasai, ondo jarriko da eta.

**XANTI:** Ea, animatu, ondo jartzen bada nire diskotekara joango gara dantzatzera eta.

**ANE:** (erdi negarrez) oraindik gaizki dago eta besterik ez duzue buruan, zuek lotsa gutxi, hori da duzuen!

**KOLDO:** Bai, Ane, bai, arrazoi guztia duzu, baino kontuan har ezazu Marta ondo jarriko dela eta berari poz pixka bat eman behar diogula.

**LIERNI:** Hobeto, zergatik ez gara mendira joaten egun pasa egitera?

**KOLDO:** Proposamen hori bikaina da!

**ANE:** Bai, baina, ondo jartzen denean.

**KOLDO:** Ez, badakit, Hendaiako hondartza larru gorrikora, zer iruditzen?

**DENAK:** (Lierni ezik) ez!!! Zu txoratuta al zaude?

**LIERNI:** Ez, ez, ideia aparta da, zeren hori oso naturala da.

**ANE:** Baina Martak ez du nahiko zeren bere bikini "Clois" jarri nahiko du.

**LIERNI:** Ba gorputzean tatua dezala "Clois".

**XANTI:** Baina, lehenengo, ibilaldia egingo dugu Donostiatik Zarautzera nire musika entzunez.

**DENAK:** Bale!!

### 3. eszena

**MEDIKUA:** (ospitalean egonda) Marta hobeto dago, hitz egin dezake.

**ERIZAINA:** Bere familiakorik ba al dago?

**ANE:** Ez, gu lagunak gara.

**MEDIKUA:** Pasa berarekin hitz egitera.

**ERIZAINA:** Baina kontuz ibili. (Denak sartzen dira)

**XANTI:** Kaixo.

**LIERNI:** Eup.

**ANE:** Kaixo.

**KOLDO:** Aupa.

**MARTA:** Jope, azkenean, ai neska, ze gogoia neukan kortina hauek aldatzeko oso itsusiak dira eta ez dira bat ere fashion, aizan!

**KOLDO:** Tira, neska, ba aldatuko ditugu, zer nahi duzu "Clois" edo "Miss Muñeki"?

**XANTI:** Ekarri dizut pelutxe Dj bat.

**MARTA:** Ai ze potxolada!! Kriston polita da!!!!

**KOLDO:** O bai!...gustatzen?

**ANE:** Marta,zuretzako sorpresa bat daukagu!!

**LIERNI:** 2 galtza pare "Clois" erosi dizkizugu!

**KOLDO:** Rosita eta gorria!!

**XANTI:** Bueno, joan beharra daukagu.

**MARTA:** Ez joan, bestela, zeinek margotuko dizkit azkazalak?

**ANE:** Bueno, ba, ni geratuko naiz zurekin.

**KOLDO:** Bueno ba...Ni ere geratuko naiz. (Lierni eta Xanti joan egiten dira)

**MARTA:** Begira ze esmalte polita, gorri-gorria...

**ANE:** Baina zergatik hartu zenituen drogak? Zer gertatu zitzaizun festan?

**MARTA:** Beno ba... egia esan... niri Xanti... ai!! Koldo, kontuz ibili!! Azkazala puskatuko didazu, txo.

**KOLDO:** Tira, neska!!!

**ANE:** Bai, bai, baina segi kontaktzen!

**MARTA:** Ba... Xanti gustatzen zait... eta nola ez zidan...Koldo! lima horrekin ez! azkazalak puskatzen dizkit,. lima txikiarekin!

**KOLDO:** Zuk zer uste duzu naizela... zure esklaboa ala zer? zure amak limatzea, aizu!!!

**ANE:** Bukatuko duzu istorioa, ala zer?

**MARTA:** Ai bale... ez haserretu... beno nola kasurik egiten ez zidanez... eta denbora guztian Liernirekin zegoen, ba... joan egin nintzen... eta... mafioso horiekin topatu nintzenean... ba... bukaera badakizue...

**ANE:** Nola bururatu zitzaizun horrelako gauzarik egitea?

**MARTA:** Ez dakit... Koldo!!!

**KOLDO:** Zer egin dut nik orain?

**MARTA:** Zer, eta hanketako azkazalak ez dizkidazu limatu behar, ala zer?

**KOLDO:** Zu erotua zaude, ala zer? Nahiago nuke 10 jertse "mis muñeki" erosi, hori egin baino!

**MARTA:** Bueno ba, badakizu nora joan behar duzun...

**KOLDO:** Bueno ba... banoa... Agur Ane!!! (Martari aurpegi txarrarekin begiratzen dio)

**ANE:** Baina, badakizu Xantiri Lierni gustatzen zaiola.

**MARTA:** Bai, baino... (ordu erdi bat pasa ondoren...)

**KOLDO:** Tori, dagoeneko erosi dizkizut!

**MARTA:** Zer da hau? "mis merkadillo" ze itsusia!!! hori zeinek jarriko du!!! guaj!!! (Buruari buelta emanez Koldori bueltatzen dio arropa)

**ANE:** Bueno, orain bai joan behar dudala. Ba al zatoz, Koldo?

**KOLDO:** Bai, bai.

**ANE:** Gu bagoaz. Agur, Marta!

**KOLDO:** Ciao, ciaita, Martita! (Ane eta Koldo joaten dira)

**MARTA:** Hau komeria! Zer uste du Koldo honek! Miss merkadillo zerbait jarriko dudala! Buaj!

#### 4. eszena

(MEDIKUA Marta aztertzen ari dela, atea jotzen dute eta gurasoak sartzen dira, eta bertakoak agurtzen dituzte, musu eta esku emanaz).

**AMA:** (Kezkatuta) Ai, ai, zer, zer gertatu da?

**MEDIKUA:** Zure alabak, sobredosia dauka, tratamendu bat jarriko diogu, aste batean jarriko da ongi, baina oraingoz ezin dugu ezer esan.

**AITA:** Kaixo, Marta. Zer gertatu zaizu? Zerk ekarri zaitu honetara?

**MARTA:** Ez dakit, lagun kontuak, mutil kontuak...

**AMA:** Mutil? (erne jarriaz) Zer mutil?

**MARTA:** Izan ere, ezer ez, ezer ez, batengatik. Baina ez dut berriro egingo.

**AITA:** Hori espero dugu, zerbaitetarako gaude gu.

**AMA:** Berriro egiten baduzu, oso gaizki bukatuko duzu, ospitale batean sartuta.

**AITA:** Nahiago baduzu, etxera etor zaitezke.

**MARTA:** Ez, ez, ondo egongo naiz, mobila daukat eta.

**ERIZAINA:** Egun batzuk ingresatuta pasa beharko dituzu.

**AMA:** Hobe izango da etxera eramatea.

**ERIZAINA:** Bueno, bai, agian hoberena izango da.

**AITA:** Bai, etxera eramango dugu.

#### 5. eszena

(Berriro lagunak sartzen dira)

**ANE:** Kaixo, Marta, zer moduz?

**MARTA:** Ondo, ondo, baina...

**XANTI:** Ba al dakizu txango bat ari garela prestatzen?

**KOLDO:** Ibilaldi bikain bat, bainu bat larrugorritan hartzera!



**LIERNI:** Hori utzi, sorpresa bat da eta!

**MARTA:** Eskerrik asko bisitarengatik, ikusten duzue zer lagun onak dauzkadan. (Ane, Lierni, Xanti eta Koldo, denak batera, hitz egiten hasten dira)

**ANE:** Nahi duzu txiste bat kontatzea?

**LIERNI:** Tira, ni hasiko naiz.

**KOLDO:** Bazen behin...

**XANTI:** Jaimitok...

**ANE:** Aizu, ni hasi naiz!!!

**LIERNI:** Baina nik oso txiste ona daukat.

**ERIZAINA:** Benga, hemen ezin da builaka egon, denak kanpora!! Joan behar duzue, deskantsatu behar du eta.

## 6. eszena

(Lagunak gelatik joaten dira, hortik gutxira mafiosoak sartzen dira).

**FOGG:** Kaixo Marta. (Marta oso urduri)

**MARTA:** Ka... ka... kaixo.

**WILLY:** Isilik, ezta?

**MARTA:** Zer?

**FOGG:** Ea isilik egon zaren, jope!

**MARTA:** Bai, bai, noski, horixe baietz!

**WILLY:** Bueno, bale, oso ongi, gehiagorik nahi? (Marta erizainari deitzen saiatzen da, baina...)

**FOGG:** Telefonoa hartzen baduzu gorriak ikusiko dituzu! (Martak telefonoa hartzen du)

**WILLY:** Ua, ua, ikusiko duzu, egunen batean harrapatuko zaitugu!!

**FOGG:** Eta gorriak ikusiko dituzu!!

## 7. eszena

(Mafiak ihes egiten du, orduan Marta negarrez hasten da)

(Erizainak norbait negarrez entzuten du eta azkar joaten da Martaren gelara).

**ERIZAINA:** Zer gertatzen zaizu?

**MARTA:** Ez ezer ez, kaka, makillajea kendu zait!! (Komunera doa berriro makillatzera)

**ERIZAINA:** Nola ez zaizula ezer gertatzen, kontatu ja!

(Martak dena kontatzen dio)

**MARTA:** Baina ez kontatu inori, e?

**ERIZAINA:** Baina, hori ertzaintzari kontatu behar zaio bestela...

**MARTA:** Ez, ez, zin egidazu zure mobilaren koberturagatik!.

**ERIZAINA:** Bueno, ados!

**MARTA:** Benetan, gauza horiek "yuyu" a ematen didate!

**ERIZAINA:** Zer? "Yuyu"?

**MARTA:** Bai, yuyua, hotzikarak, txo, ez zara enteratzen!

## VIII EKITALDIA

### 1. eszena

(Din, don)

**XANTI:** Banoa!

**MARITXU:** Hemen bizi al da Marta?

**XANTI:** Bai, bai, aurrera.

**GURASOAK:** Martaren gurasoak gara, hemen dago bera?

**XANTI:** Oraintxe etorriko da Marta, berarekin gelditu gara. (Gurasoak egongelara sartzen dira.)

**MARITXU:** Zergatik utzi zenioten joaten?

**PATXI:** Hori, hori.

**ANE:** Ba, festan geunden eta bakarrik sentitzen zenez mafioso batzuegana joan zen droga bila.

**PATXI:** DROGA BILA!!!!!!!!!!!!!! Eta utzi zenioten?!

(Patxi kanpora joaten da haizea hartzera.)

**MARITXU:** PATXIIIIII!!!!!!!!!!!! Etorri hona! Nora zoaz?!

**PATXI:** Banoa, Praxkuren biboteak!!!!

## 2. eszena

(Marta sartzen da.)

**MARTA:** Kaixo, amatxito! Zer moduz? Kaixo, aitaxito! Zer moduz? Ni prest nago munduaren amaierarako.

**MARITXU:** (Izututa) Zeeeeeer? Mundua amaitu? Ez, ez, oportetara!

**PATXI:** Zentro batera joango zara, atsedean hartu eta sendatzera. Sasoian jarriko zara.

**MARITXU:** Orduan, sano-sano egonda, ligatuko duzu mutilekin eta ez duzu disgusturik izango.

**MARTA:** (Buru makur) Buenoooooooo....

**PATXI:** Ados orduan, ez dago gehiago hitz egin beharrik. Eskerrik asko lagunok, zuen laguntzagatik. Agur.

**MARTA:** Eeee! Utzi nire lagunak agurtzen.

**PATXI:** Horixe, kanpoan itxarongo dugu.

**MARTA:** Barkatu gertatu denagatik, ez hartu inoiz droga...

**LIERNI:** Egun batean zu bisitatzera joango gara, barre batzuk egin behar ditugu.

**MARTA:** Agur! (Etxean Xanti, Lierni, Koldo eta Ane triste gelditzen dira.)

**MARTA:** Ezin naiz horrela joan, asko maite zaituztet! (Martak bere lagunak besarkatzen ditu.)

**ANE:** Badakizu, Marta, 3 hilabete barru, zure logela zu hartzeko irrikaz egongo da.

**MARTA:** Egiatan?

**ANE:** Noski.

**MARTA:** Benetan?

**LIERNI:** Ziur.

**MARTA:** Txantxetan ari zarete?

**XANTI:** Baietz, Marta. Bene-benetan ari gara. (Besarkatu egiten du.)

**KOLDO:** Nik ere bi muxu. (Denek agurtzen dute eta besarkatu ondoren agurtzen dira.)

**DENAK:** AGUR, AGUR,AGUR, AGUR, AGUR...

AMAIA